


# GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN EKINTZA HUMANITARIOKO ESTRATEGIA

2018-2023





**Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren  
Ekintza Humanitarioko Estrategia, 2018-2023**

**Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo**

**Vitoria-Gasteiz, 2017**

## AURKIBIDEA

1. SARRERA .....	4
2. ESPARRUA, HELBURUA, PRINTZIPIOAK ETA IKUSPEGIAK .....	5
3. EGUNGO EGOERA HUMANITARIOA .....	7
4. ELABORAZIO PROZESUA .....	8
5. POLITIKA HUMANITARIOAREN IBILBIDEA 2008-2016KO ALDIAN .....	9
6. 2018-2023KO URTEETARAKO APUSTUA .....	11
1. ARDATSA. Krisialdi humanitarioak harrapatutako komunitateak eta pertsonak babestea .....	12
2. ARDATSA. Erakunde humanitarioak indartzea .....	15
3. ARDATSA. Euskal herritarrak informatu eta sentsibilizatzea .....	17
4. ARDATSA. GLEAren eginkizuna eta beste eragile batzuekin duen koordinazioa indartzea .....	19
7. BALIABIDEAK .....	21
8. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA .....	22
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....	23

## SARRERA

2017. urtean, 65 milioitik gora barne-desplazatu eta iheslari erregistratu zituen Iheslarietzako Nazio Batuen Goi Komisarioak<sup>1</sup>. Krisialdi humanitarioek luzaroan irauten dute, eta beharrak handiagoak izaten dira helden zaien laguntza baino. Eragile humanitarioek gero eta egoera konplexuagoei egin behar izaten diete aurre, eta sistema humanitaria, dirudenez, ez da gai eskaerei erantzuteko, pertsona gero eta gehiago artatu eta inoiz baino leku gehiagotan jardun arren.

Hausnarketa hauek agerian jartzen dute egoeraren larritasuna eta ekintza humanitarioaren egokitasuna. Eusko Jaurlaritzak ibilbide luzea egin du eremu horretan, eta dokumentu estrategikoa eginez berretsi egiten du krisialdi humanitarioek harrapatutako pertsonen bizia salbatu eta haien duintasuna babesteko konpromisoa. Gainera, sistemaren erronketako batzuei ekiten saiatuko da, erakundeek eta administrazioak berak azken urteotan pilatu duten esperientzian oinarrituta eta esku hartzen duten eragileen gaitasunak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduna baldintzatzen duten araudia eta aurrekontua kontuan hartuta.

Ekintza Humanitarioren Estrategia (aurrerantzean EAH) GLEAren erreferentziazko dokumentua da eremu horretan. Dokumentuaren xedea 2018-2023ko aldirako politika humanitaria planifikatzea da, nazioarteko sistema humanitarioari lagun diezaion dituen espezifikotasun eta eskumenekin.

Dokumentu hau parte hartzeko prozesuaren eta euskal politikaren indar eta erronkak identifikatzeko aukera ematen duen diagnostikoaren zati da. Indarren artean, orain arte erabilitako kontzeptu, printzipio eta ikuspegiaren egokitasuna dago, eta erronken artean, berriz, etorkizunean politika bideratu ahal izateko ezagutza eta ikaskuntzak sortzeko espezializazioaren beharra.

EAHk lau ardatzetan antolatzen diren ekintzak proposatzen ditu: krisialdiak kalte egin dion biztanleria babestea; erakundeak indartzea, beren lana eraginkortasun handiagoarekin gauzatu dezaten; herritarrik informatu eta sentsibilizatzea, ekintza humanitarioan parte har dezaten; eta GLEAren eginkizuna eta beste eragile batzuekin duen koordinazioa indartzea, bere politikaren kalitatea hobetzeko.

Dokumentua zortzi ataletan dago egituratuta. Sarreraren ostean, bigarren atalean, GLEAren politika humanitarioak oinarri dituen helburu, printzipio eta ikuspegiak azaltzen dira. Ondoren, hirugarren, laugarren eta bosgarren ataletan, nazioarteko egoera adierazten da labur-labur, dokumentua egiteko erabili den parte hartzeko prozesua berrikusten da eta azken urteotan egindako ibilbidea azpimarratzen da. Seigarren atalean, EAHren apustua lantzen da. Zazpigarren atalak giza baliabideak eta finantza-baliabideak ezartzen ditu, eta azken atalak jarraipen eta ebaluazioko sistema.

Eremu honetan GLEAk prestatu duen lehenengo estrategia da hau, eta, beraz, esperimental eta ikasketeko baliagarria izatea espero da. Horregatik, inplementazioan zehar ekintzak monitorizatu eta behar izanez gero doitu ahal izateko jarraipen-sistema aurreikusi da. Azken ebaluazioak arlo humanitarioko hurrengo plangintza bideratuko du.

## ESPARRUA, HELBURUA, PRINTZIOAK ETA IKUSPEGIAK

EAH Garapenerako Lankidetzaren Legearen<sup>2</sup> eta 2014-2017ko aldirako Garapenerako Lankidetzako III. Gida Planaren<sup>3</sup> barruan kokatuta dago. Alde batetik, legeak ekintza humanitarioa bere tresnatzat hartzen du, eta, bestetik, Gida Planak estrategia gauzatzeko eta ebaluazio eta ikasketaren kultura sustatzeko konpromisoa ezartzen du. Indarraldia sei urtekoa denez, Garapenerako Lankidetzako IV. eta V. Gida Planetan txertatuko da eta elkarrekintza izango dute bien artean.

GLEA Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren barnean dago, eta, hortaz, haren plangintza estrategikoak eragina du EAHn: lehenbizi, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak<sup>4</sup> bizikidetzarako erronken artean iheslariaren egoera eta gatazken ondorio humanitarioak aipatzen ditu; bigarren, "Esparru-dokumentua, Eusko Jaurlaritzarena, modu partekatuan bideratzeko errefuxiatuek Europako mugetan bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailartekoa"<sup>5</sup>. Dokumentu honek bi osagai azpimarragarri ditu: lehenengo ardatzak Eusko Jaurlaritzak beharrian humanitarioei erantzuna emateko konpromisoa hartzea nahi du larrialdi-deialdiak finantzatu eta ekimen espezifikoak gauzatzuz; eta bigarren ardatzak gatazkek modu baketsuan konpontzeko laguntza eta eskubide sozialen sustapena proposatzen du, osasun, hezkuntza, genero-berdintasun, erregistro edo partaidetzaren arloan, besteak beste. Azkenik, "Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Plana erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren aurrean" dokumentuak<sup>6</sup> indarkeria-testuinguruetan jarduteko beharra nabarmentzen du.

Garrantzitsua da nabarmentzea, lege-testu eta dokumentu estrategikoez gain, hondamendien ondorioak jasaten dituzten pertsonekin euskal herritarrek duten konpromisoa erakusten duela ekintza humanitarioak. Politika hau nazioarteko lankidetzaren eremu espezifiko da, eta, hortaz, oinarri hartzen ditu elkartasun desinteresatuaren printzipioa, erantzunkidetasun globala eta biztanleria ahulenen babesa, eta azken hau kontuan izanik gauzatzeko diren esku-hartzeek pertsonen borondatea eta erabakitze gaitasuna errespetatu behar dituzte beti.

EAHren helburua zera da, GLEAren politika humanitarioa zehaztea datozen sei urteetarako. Abiapuntutzat hartzen den kontzeptuaren arabera, ekintza humanitarioak bizitza salbatzeko, sufrimendua arintzeko, giza duintasuna babesteko eta hondamendiek kalte egindako pertsonen eskubideak babesteko jarduketara mota ugari hartzen ditu barnean. Esku-hartzeotan, ahaleginak egin behar dira etorkizuneko garapenarekin lotura bat bilatu, giza eskubideak sustatu eta bakea eraikitzen laguntzeko, ahultasuna murriztuz eta biztanleriaren gaitasunak gehituz.

Gizatasun, inpartzialtasun, independentzia eta neutraltasunaren printzipioek zuzentzen duten politika honen erdigunean pertsonak daude. Oinarri ditu, gainera, kaltetutako komunitateen behar eta eskubideak; beraz, ez du loturarik interes geostrategiko eta ekonomikoekin, ezta kanpo-proiektzioko interesekin ere. Gainera, ez da hartzen hondamendi mediatikoei emandako erantzun zehatz gisa, krisialdiari erantzuteko estrategia iraunkorraren zati gisa baizik. Garrantzitsua da azpimarratzea, nolana ere, politika honek biztanleriarengan mendekotasuna sortzea ekidin behar duela, eta, horretarako, funtsezkoa da biztanleen protagonismoa eta parte-hartzea.

EAHk ez dakar aldaketarik orain arte erabilitako ikuspegiekin alderatuta: tokiko gaitasunak indartzea eta ahultasuna murriztea konektagarritasun-irizpidea erabiliz, biztanleriaren partaidetza eta errealitate soziokulturalera egokitzea, babesa, testigantza eta bakea eraikitzea, genero-ikuspegia eta jasangarritasun ekologikoa; horiek guztiak jarduketak nola ezarri behar diren bideratzeko ikuspegi egokiak dira oraindik ere. Genero-zeharkakotasuna biziki garrantzitsua da, neskato, emakume, mutiko eta gizonei ez baitie krisialdiak modu berean eragiten, gaitasun eta ahultasun desberdinak baitauzkate, arrisku desberdinei aurre egin behar izaten baitiete, zerbitzu eta baliabideetara duten sarbidea ezberdina baita eta bizirik irauteko eta komunitateei laguntzeko mekanismo desberdinak garatzen baitituzte.

Halaber, bere gain hartzen ditu gai honi buruz dauden lege-arauak: Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea<sup>7</sup>, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa<sup>8</sup>, Iheslarien Nazioarteko Zuzenbidea<sup>9</sup> eta barne-desplazamenduen Printzipio Gidariak<sup>10</sup>.

Azkenik, honako hauek hartzen ditu erreferentziatzat: hondamendi kasuetan laguntza emateari buruzko Gurutze Gorriaren eta Ilargi Erdi Gorriaren eta GKEen Nazioarteko Mugimenduaren jokabide-kodea<sup>11</sup>, kalitatearen eta kontuak ematearen arloko funtsezko arau humanitarioa<sup>12</sup> eta Grand Bargain<sup>13</sup> dokumentua. Dokumentu hori dohaintza-emaile batzuek, Nazio Batuetako agentziek eta erakunde humanitarioek sinatu zuten, 2016an Istanbulen egin zen munduko goi-bileran, eta honako konpromiso hauek biltzen ditu, besteak beste: herriek parte hartzea erabakiak hartzerakoan, tokiko eta nazio-eragileei laguntzea, finantzaketa malgua eta urte anitzekoa, justifikazio-baldintzak sinplifikatzea eta gardentasuna.

## EGUNGO EGOERA HUMANITARIOA<sup>14</sup>

Azken hamarkadan komunitate zaugarriari emandako laguntzaren arloan aurrerapenak egin diren arren, badirudi sistema humanitarioa ez dela gai nazioarteko gatazka-testuinguruetakoko erronketako askori erantzuteko. Krisialdiak gero eta sarriago gertatzen dira, gero eta gehiago irauten dute eta gero eta pertsona gehiagori eragiten diete: urbanizazio bizkorrak eta klima-aldaketak gehitu egiten dute hondamendi naturalen maiztasuna, eta gatazkak krisialdi politiko konplexuen eta pobrezia-maila handien ondorioa dira.

Egoera honetan, dohaintza-emaileek, agentziek eta erakundeek erronka eta zailtasun batzuk gainditu behar dituzte jarduketetan. Jarraian, euskal politika humanitarioan ere eragina duten zailtasun batzuk aipatuko ditugu:

- Finantzaketa eskasa eta ezegonkorra; gainera, testuinguru batzuetan arreta jarri eta beste batzuk albo batera uzteko joera dago, eta krisialdi ahaztuak sortzen dira.
- Hondamendiaren arabera, eragile gehiago edo gutxiago egon ohi da, buruzagitza globalaren falta dago eta printzipio humanitario tradizionalak zalantzan jartzen dituzte sortzen ari diren eragile berriek, baita eragile klasiko batzuek printzipio horiek praktikan ezartzeko duten moduak ere.
- GKEek izan behar duten eginkizunari buruzko eztabaida, finantzaketa gehienbat iparraldeko nazioarteko erakundeek erabiltzen baitute, lekuan bertan toki-erakundeak egon arren.
- Lokalizazioa, zeinak toki-eragileei –hots, agintari eta hegoaldeko erakundeei– protagonismo eta buruzagitza handiagoa eman nahi baitie, "tokikoa" hitzaren esanahia zehazterakoan adostasunik egon ez arren.
- Artatutako pertsonen gogobetetasun-mailari buruzko kontsulta-kopuru eskasa, partaidetza-irizpidea kalitate-ekimen guztietan –Esfera Proiektuan<sup>15</sup> edo orain dela gutxiko Funtsezko Arau Humanitarioan, esaterako– kontuan hartu arren.
- Birgaitze eta garapenaren arteko lotura, hondamendi arriskuaren murrizketa jarduketa-eremu humanitario edo garapenerako jarduketa-eremu bezala, edo ekimenak inplementatzeko ikuspegi gisa.
- Krisialdien eta asilo eta babesaren arau nazionalen politizazioa.

Sortutako itxaropenak gorabehera, eztabaida horietako askok ez dute erantzunik jaso Munduko Lehenengo Goi-bilera Humanitarioan. Orduan, hamarkada honetan sisteman aldaketa handiak egin badira ere, sektorea ez dago krisialdi iraunkorrenei aurre egiteko prestatuta, eta lan humanitarioa ulertzeko modua kontuan hartzen badugu, badirudi mendebaldeko sistema formala ez dela lan ona egiten ari laguntzen saiatzen den pertsonen iritziz.

## ELABORAZIO PROZESUA<sup>16</sup>

Aipatutako erronketatik GLEAk bere esperientzia, gaitasun eta baliabideetan oinarrituta ekarpenak zeintzuei egin diezazkiekeen identifikatzeko, 2017. urtean zehar gogoeta egin eta eztabaidatzeko prozesu bat abiarazi zuen EAH egite aldera. Prozesuak partaidetza handi eta askotarikoa izan zuen: GLEAko zuzendari eta teknikariez eta Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko ordezkariak politikoaz gain, GLEAko organo erabakitzaileak eta Eusko Jaurlaritzako organo aholku-emaileak, euskal erakundeen sektoreak eta erabakiak hartzerakoan aholkuak ematen dituzten adituen talde batek parte hartu zuten zenbait gune eta unetan.

Aurrez, eta GLEAk eskatuta, Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak Eusko Jaurlaritzaren ekintza humanitarioari buruzko azterlan<sup>17</sup> egin zuen 2016an, eta azterlan hori arlo horretako dekretuaren inplementazioak iraun zuen sei urteen barne-azterketarekin osatu zen.

2017ko otsailean, GLEAk galdeketa bat bidali zien GKEei eta ondoren, elkarrizketa batzuk izan zituen eremu humanitarioan egiten duten lanari buruz sakondu eta EAHri buruz zeuzkaten itxaropenak eta GLEAk zuen eginkizuna ezagutzeko.

Martxoan, jardunaldi bat egin zen 2016ko Munduko Goi-bilera Humanitarioaren ondoren lankidetzeta deszentralizaturako proposatutako erronkei buruz. Bertan, Andaluzia, Valentzia eta Euskadiko lankidetzeta-esperientziak trukatu ziren.

Erakundeekin egindako lanarekin jarraitzeko, maiatzean baterako saioa egin zen tokiko bazkide moten indar eta ahulezien azterketa eta testuinguruen edo esku-hartze moten lehenespena edo lehenespen eza ardatz hartuta.

Martxotik azarora bitartean, adituekin egindako topaketetan, gai horietan eta beste batzuetan sakondu genuen; esaterako, zeharkako ikuspegien edo kontu-ematearen gain. Halaber, Euskadiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Koordinakundearekin bilera bat egin zen.

Azaroan, teknikarien taldeko hiru pertsona Afrika Erdiko Errepublikara eta Kamerunera joan ziren krisialdi ahaztuaren testuinguruan inplementatutako proiektuak ezagutzeko.

Prozesu honen esparruan, Hegoa Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuak (EHU) eta Iecah, Gatazka eta Ekintza Humanitarioaren Ikerketa Institutuak egindako lan-koaderno batzuk argitaratu ziren.

Maila tekniko eta politikoan azken egiaztapenak egin ondoren, abenduan, herritarrak informatu eta parte hartzeko aldia hasi zen, eta aldi horretan era bateko eta besteko ekarpenak jaso ziren. Prozesua amaitzeko, EAHren behin betiko bertsioa idatzi zen 2017ko abenduaren amaieran.



## POLITIKA HUMANITARIOAREN IBILBIDEA 2008-2013ko ALDIAN

1990. urtetik 2016. urtera bitartean, Eusko Jaurlaritzak ekintza humanitarioko 353 ekintza bultzatu ditu, eta, horretarako, ia 64 milioi euro erabili ditu, hau da, aldi horretan banatutako funtsen %8,7.

2008. urtea une garrantzitsua izan zen, ekintza humanitarioko dekretu espezifiko<sup>18</sup> onetsi baitzen, eta urte horretan indarrean jarri zen Gida Planak<sup>19</sup> lehenengo aldiz ekintza humanitarioari buruzko atal bat baitzuen. Hala, datuek erakusten dutenaren arabera, urte horretatik aurrera, jauzi kuantitatibo bat gertatu da, 2008-2016ko aldian 174 esku-hartze finantzatu baitira 40 milioi euro erabilia, hots, zortzi urte horietan banatutako funtsen %10,57.

GLEAk berak ez du ekimenik sustatu: funts guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) irabazi asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak emanez kudeatu ditu. Araudian agertzen diren beste bi jarduketa-modalitateak ere ez dira erabili: giza baliabideak edo baliabide materialak bidaltzeko zuzeneko ekintzak eta Nazio Batuen sistemako agentzia humanitarioen deialdiei egindako ekarpenak.

EAEko sektore humanitarioa osatzen duten erakundeak Euskadin dute egoitza nagusia edo ordezkaritza; horien artean, %17 Nazio Batuen erakunde kolaboratzaileak dira. Gehienentzat, ekintza humanitarioa estatutu-takoa xedearen zati den arren, %60k bere aurrekontuaren %15 baino gutxiago erabiltzen du arlo honetan. Guztira, funts pribatuak finantzaketa osoaren %36 dira. Tokiko bazkideei dagokienez, askotarikoak dira: tokiko GKEak eta erakunde publikoak, nazioarteko erakundeak eta Nazio Batuen agentziak.

Finantzatutako esku-hartzeen tipologia askotarikoa izan da, arreta jaso duten herrialde, sektore eta biztanleriari dagokienez. Ekimen gehienek xede berberari jartzen diote arreta, ekimenen %70ek gatazkagatik ihes egin edo desplazatu behar izan duten komunitateak lagundu dituzte, batez ere leku hauetan: Aintzira Handien eskualdea, Palestina, Kolonbia, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa eta, orain dela gutxi, Siria, eta gutxiago Somalia, Kenya, Sudan, Etiopia, Txad, Mali... Aipatutako testuinguru batzuk krisialdi ahaztutzat hartzen ditu Europar Batasunak. Bestalde, funtsen %30 hondamendi naturaletan laguntzeko erabili da: gehienek lurrikaren ondorioak arindu dituzte -bereziki, Haitin, eta, gutxiago, Ekuador eta Nepal- . Baina uholde, lehorte tifo edo izurriteetan ere erabili da; adibidez, Kuban, Bolivian, Guatemalan, El Salvadorren, Liberial eta Palestinan.

Iraupena bermatu eta sufrimendua arintzeko biztanleriari oinarritzko ondare eta zerbitzuak (aterpea, babes, edateko ura, elikagaiak edo osasun-arreta ematea) emateaz arduratzen diren larrialdi-proiektuak finantzatzeko, funts guztien %15 erabili da. Funtsen gainerako %85a ekintza humanitarioetarako erabili da, hau da, kaltetutako pertsonen ezinbesteko beharrei erantzuteaz gain, garatzeko oinarriak ezarri nahi dituzte, ahultasuna gutxitu eta euren gaitasunak gehituz. Gehienek iheslari edo desplazatuak dituzte ardatz, baina tokiko abegi-biztanleria ere barnean hartzen dute; ia ez dago hondamendien arriskua murrizteko esku-hartzerik (%4,7).

Proiektu horien bidez iheslari, desplazatu edo itzulitakoei laguntza psikosoziala, prestakuntza eta aholkularitza juridikoa eskaini zaizkie beren eskubideak eska ditzaten, diru-sarrerak sortzen dituz-

ten jarduerak abiarazi dira integrazioa bultzatzeko, emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren aurka borrokatzeko ekimenak sustatu dira eta desplazatuta dauden haur eta nerabeen hezkuntzarako sarbidea eta hezkuntzaren kalitatea hobetzen lagundu da. Araudiak partida espezifikoak aurreikusten badu ere, funts gutxi bideratzen dira sentsibilizazio- eta hedatze-lanak bultzatzen dituzten testigantzak biltzera (zehazki, %3).

Datu kuantitatiboak gorabehera, aurreko ibilbidearen azterketak agerian utzi ditu hobetu daitezkeen eta GLEA zein euskal eragile humanitarioak interpelatzen dituzten elementu batzuk.

Horrela, GLEAk larrialdiei erantzuteko egungo mekanismoak berrikusi behar ditu, ez baitute behar besteko azkartasunaz erantzuten, eta testuinguru, sektore edo biztanleria jakin batzuentzako ekimenak gauzatzea planifikatu behar du. Beste dohaintza-emaile publiko batzuekin koordinazio hobea lortzeko eta erakundeekin etengabeko elkarrizketa edukitzeko ere hobekuntza-tartea dago, esperientziak trukatzeko eta denok batera eraiki ahal izateko guneak sor daitezzen. Kontu-emaiteari dagokionez, GLEAk zein beste eragile batzuek hainbat erronka daukate: funtsen erabilerari buruz, erabilera kuantitatiboaz gain bestelako erabilerei buruzko informazioa ematea, biztanleriari jarduketekin duten gogobetetasunari buruz galdetzea eta egon daitezkeen kexak kudeatzea, eta biztanleriaren bizitzan duten eragina jakinaraztea. Ildo horretan, esku-hartzeen esparruan bildutako esperientzia eta testigantzek hedatze- eta sentsibilizazio-proposamenak oinarri hartzeko balio dezakete.

Errealitate honetan oinarriturik, dokumentuaren hurrengo ataletan datozen urteetarako apustua agertzen da eta abiarazteko baliabideak eta jarraipen eta ebaluaziorako mekanismoak jasotzen dira.

## 2018-2023ko URTEETARAKO APUSTUA

Dagoeneko aipatu den bezala, EAH egiteko prozesuari esker, orain arte gauzatutako politika humanitarioaren alderdi batzuk ebaluatu dira. Beraz, nabarmendu beharra dago kontzeptuak, printzipioak eta zeharkako ikuspegiak ez direla zalantzan jarri eta bat datozela bigarren atalean adierazitako ikuskerarekin.

Dena den, gauzatu gabeko erronkak hausnartu dira: biztanleria hobeto babesteko modua; erakundeak indartzeko modua beren lana era eraginkorragoan egin dezaten; herritarrak informatu eta sentsibilizatzeko modua ekintza humanitarioan parte hartu dezaten, eta, azkenik, GLEAren eginkizuna eta eragileekin duen koordinazioa indartzeko modua.

Azken urteotako politikari esker, zegokien biztanleriari eta egoerei erantzun zaie ikuspuntu humanitariotik. Hala ere, egiturazko baliabide nahikoa ez dagoenez, diru-laguntzen kudeaketan jarri du arreta, ia jarduera propio edo koordinaturik gabe. EAH egitea inflexio-puntu bat da politika hori modu berri batean planifikatu, kudeatu, gauzatu eta ebaluatzeko; laburbilduz, politikaren kalitatea hobetzeko. Hobekuntza apustu estrategiko hauetan gauzatzen da:

- Larrialdiei erantzutea deialdiei edo funts globalei ekarpenak eginez eta Osakidetzako pertsonal sanitarioak Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) START proiektuan parte hartzea<sup>20</sup>.
- Gatazka-testuinguruetan eta indarkeriazko beste egoera batzuetako espezializazioa ekintza humanitarioetarako, GKEei zuzendutako deialdiko proiektuak GLEAk sustatutako ekimenekin elkartzen dituen.
- Erakundeak lekuan bertan eta EAEn indartzea, tokiko buruzagitzako estrategiak bultzatuz eta esperientziak trukatzuz.
- Informazioa sortzea, ezagutzea eta ikastea, jarraipen-sistema abiaraziz eta heziketa-guneen bidez.
- Xede den biztanleriak, euskal herritarrek, beste administrazio publiko batzuek eta Eusko Jaurlaritzak berak ere kontuak ematea.
- Euskal herritarrak krisialdien zergatiei buruz sentsibilizatzea.
- GLEA indartzea eta beste eragile batzuekin antolatzea, ekintza humanitarioko barne-unitatea finkatuz eta aurreikusitako ekintzetan eragileak tartean sartuz.

Ondoren, apustua eta dagozkion ekintzak eratzen dituzten ardatzak adierazten dira, eskuragai dauden gaitasun eta baliabideen arabera aukeratuta.

---

## 1. ARDATSA

### Krisialdi humanitarioak harrapatutako komunitateak eta pertsonak babestea

EAHren helburua pertsonen bizitza, eskubideak eta duintasuna babestea da, bai larrialdietan bai krisialdi-egoera luzeetan babestea.

Larrialdi-egoerei erantzuteko, GLEAk bi bide erabiliko ditu eskatzen duten azkartasuna ziurtatu ahal izateko: Nazio Batuen deialdiei edo funts globalei ekarpenak egitea eta Osakidetzako pertsonal sanitarioaren parte-hartzea sustatzea AECIDren START proiektuan. Ekimen hau hondamendiren bat dagoenean 72 orduko epean erabili ahal izateko prestatuta dagoen bigarren mailako ospitalean datza.

Ekintza humanitarioak implementatzeko, GLEAk bere ekimenak abiaraziko ditu eta proiektu eta esparru-estrategietarako diru-laguntzak lortzeko deialdia egingo du urtero. Diru-laguntzak irabazi asmorik gabeko erakundeek eskuratu ahal izango dituzte. Nolanahi ere, esku-hartze guztiak gatazka-testuinguruetan jarriko dute arreta, prebentzio-, laguntza- eta birgaitze-faseak barnean hartuz. Gatazka horiek eremu humanitarioan erabili ohi diren krisialdien nazioarteko estandarren bidez identifikatuko dira; adibidez, Europar Batasuneko krisialdi ahaztuetakoaren bidez.

Egun, gatazken barnean, gerra-liskarraz gain, indarkeriazko egoerak ere sartzen dira; adibidez, Erdialdeko Amerikako iparraldeko triangelukoa, narkotrafikoari eta krimen antolatuekin lotutakoa. Gainera, azaleratzen ari direnak, luzeak edo ahaztuak izan daitezke. Krisialdi luzeak dira nahitaezko desplazamenduen arrazoi garrantzitsuenetako bat, eta garapen jasangarria hondatzen ari dira. Krisialdi luzeetan beharizan izugarriak eta ustekabekoak, egiturazko ahultasunak eta urteetan irauten duten larrialdiak batzen dira. Ahaztutako gatazketan biztanleriak ez du ia laguntzarik jasotzen, eragile humanitario gutxi, estaldura mediatiko txikia eta dohaintza-emaitzen interes falta baitago.

Ekintza humanitarioek ez dituzte soilik une jakin batean biztanleriaren berehalako beharrak arindu behar, baizik eta beren ahultasun-egoera gainditzen eta gaitasunak indartzen lagundu behar diete, eta, ahal den heinean, garapenarekin lotzen saiatu. Ondasun eta zerbitzuen hornidura gauzaz edo diruzko ekarpenen bidez egin daiteke, eta hainbat motatakoak izan daitezke: ura eta saneamendua, babes, osasuna, hezkuntza, laguntza psikosoziala eta juridikoa, diru-sarrerak sortzen dituzten jarduerak, gaitasunak indartzea, testigantzak biltzea eta hedatzea, besteak beste.

Indarkeriazko testuinguruei lehentasuna emateko erabakia koherentea da arreta eskaintzeko funts pribatuak mugiarazteko zailtasunarekin, hondamendi naturalentzako errazago lortzen baitira, eta baita dohaintza-emaita eta erakundeen sentsibilizazio-lan handia behar izatearekin ere, ez baitira hain krisialdi mediatikoak. Ahalegin hori bultzatu dezakete euskal erakundeek zein GLEAk kanpaina edo salaketan bidez. Modu horretan, dohaintza publiko eta pribatuen artean osagarritasuna lortzeaz gain, jarrera koherentea da deialdiak finantzatzeko azken urteotako joerarekin.

Eskuragai dauden funts eta tresnen egonkortasuna, oso apala bada ere, kontuan hartu beharreko alderdi positiboa izan liteke krisialdi luze edo ahaztuetan. Gainera, dohaintza-emaile publiko batzuek erraztasun gehiago dute hondamendi naturalei arreta eskaintzeko, ez dutelako ekartzen gatazkek daukaten ondorio politikorik. GLEAren kasuan, bere politika humanitarioa ez dutenez interes geoestrategikoei asko baldintzatzen, gutxi finantzatu ohi diren alderdietan (salaketan edo eragin politikoan, esaterako) ekarpenak egiteko bidea zabaltzen du.

Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, gatazketan jardutearen aldeko apustua erabat koherentea da Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren dokumentu estrategikoetan jasotzen diren lehentasunekin.

Nabarmendu beharra dago erabaki hau lankidetzeta-baliabideei buruzko ikuspegi integralaren esparruan hartzen dela. Ikuspegi horretatik aztertu dira hondamendi naturalak beste eremu batzuetan txertatzeko aukera ematen duten neurriak. Beraz, hondamendien arriskua murriztea garapenerako lankidetzeta-deialdiaren bidez aztertu daiteke, eta hondamendi naturalek eragindako larrialdiei abian dauden eta GLEAk finantzatzen dituen proiektu edo programen funtsak birbideratuz erantzun dakieke. Halaber, START proiektuaren bidez, funts globalei ekarpenak eginez edo, noizbehinka, Gobernu Kontseiluaren aparteko laguntzen bidez erantzungo zaie hondamendi naturalei.

EKINTZAK	EGUTEGI ORIENTAGARRIA	XEDEA ETA BALIABIDEAK
<b>LARRIALDI HUMANITARIOAK</b>		
<b>1.1.</b> Nazio Batuen deialdiei edo funts globalei egingandako ekarpen ekonomikoak	<p>Hasierako hornidura: urte bakoitzeko lehenengo hiru hilakoa</p> <p>Beste hornidura batzuk: dagokion unean</p>	<p>Ekintza humanitariorako urteko funts banagarrien %5-10eko hornidura</p> <p>Inplementazioa baloratzea, honako hauek kontuan hartuta: erantzun-denbora, krisialdi-mota, erantzuna jasotako behar eta eskubideak, agentzia eta erakunde implementatzaileak, etab.</p>
<b>1.2.</b> Abian dauden GLEAk finantzatutako garapenerako lankidetzeta-proiektu edo -programen funtsak birbideratzea	Dagokion unean	Birbideratutako funtsei buruzko fitxak: zenbatekoa, erantzun-denbora, erantzuna jasotako behar eta eskubideak, kontingentzia-funts propioak, erakunde implementatzaileak, etab.
<b>1.3.</b> Osakidetzako pertsonal sanitarioak START proiektuan parte hartzea	Dagokion unean	Baloratzea pertsona-kopurua eta beren espezializazioa, jasotako prestakuntzak, ezagutzen transmisioa, parte-hartzaileen esperientzia, etab.

## EKINTZA HUMANITARIOAK GATAZKA-EGOERETAN

<p><b>1.4.</b> Esparru-proiektu eta -estrategien deialdi publikoa</p>	<p>Deialdia: urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoa</p> <p>Ebazpena: urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoa</p>	<p>Urteko deialdia, ekintza humanitariorako urteko funts banagarrien %70-85eko hornidura duena (2.1 eta 3.1 ekintzen deialdi eta hornidura bera)</p> <p>2019-2013: funtsen %100 gatazka-testuinguruetarako</p> <p>Inplementatutako babes-jarduerei buruzko fitxak: erantzun-denbora, krisialdi-mota, kolektiboak, erantzuna jasotako beharrak eta eskubideak, behar eta gaitasunen azterketarekiko bat-etortzearen zenbaterainokoa, biztanleriarentzako cash transfer erabiltzea, zeharkako ikuspegiak txertatzea, garapenarekin lotzea, etab.</p>
<p><b>1.5.</b> GLEAk sustatutako ekimenak</p>	<p>Dagokion unean</p>	<p>Ekintza humanitariorako urteko funts banagarrien %8-20ko hornidura duten 9 ekimen sustatzea (2.2 ekintzarekin eta 3.2 ekintzaren zati batekin partekatutako xede eta baliabideak)</p> <p>Sustatutako ekimenei eta beren balorazioari buruzko fitxak, ekarpen espezifikoak edo 1.4 ekintza osatzen duen ekarpena den kontuan hartuta</p>
<p><b>1.6.</b> Kaltetutako komunitate eta pertsonen aurrean kontuak ematea</p>	<p>Jarduketa humanitario bakoitzaren amaitzen denean</p>	<p>Inplementatutako ekintzei eta gogobetetasuna baloratzeko eta biztanleriaren aholkuak jasotzeko erabili diren bitartekoei buruzko fitxak, partaidetza, gardentasuna, betetako behar eta eskubideak etab. kontuan hartuta</p>
<p><b>1.7.</b> Ebaluazioak</p>	<p>2019, 2021 eta 2023</p>	<p>Honako osagai hauek aztertuko dituzten 3 ebaluazio egitea: artatutako kolektibo kalteberak, behar eta eskubideei erantzutea, gaitasunak indartzea eta garapenarekin lotzea, zeharkako ikuspegiak txertatzea, etab.</p>

---

## 2. ARDATSA

### Erakunde humanitarioak indartzea

GLEAk badaki pixkanaka komunitateen eta bertako ordezkari-erakundeen protagonismo eta buruzagitza gero eta handiagoa lortzeko aurrera egin behar dela, eta, horregatik, erakundeen indartzea sustatzea du helburua, bai euskal erakundeak, bai tokiko erakundeak, biztanleriari modu eraginkorrean lagun diezaioten. Erronka hau lokalizazioari buruzko gero eta eztabaida handiagoarekin lotuta dago; lokalizazioak laguntzen kudeaketan tokiko eragileek duten protagonismoa gehitu nahi du.

Gatazkak tokiko sare soziala indarkeriaren ondorioz estrukturalki kaltetuta dagoen lekuetan edo azkar hondatu den testuinguruetan gertatu daitezke, eta, beraz, nazioarteko erakundeen eta Nazio Batuen agentzien eginkizuna funtsezkoa izan daiteke. Erakundeek duten esperientziari, gaitasun logistiko eta elkarrizketa-gaitasunari eta sartzeko aukerari esker, testuinguru jakin batzuetan komunitateek eta bertako erakundeek egin ezin ditzaketen lanak gauzatu ditzakete.

Dena den, beste testuinguru batzuetan, pertsonak lehenengo lerroan daude beren bizia eta bizitzeko bitartekoak defendatzen, eta horrek gezurtatu egiten du babes nazioarteko erakundeen edo bake-misioen berezko eremua delako ideia. Biztanleek ez dute jarrera pasiboa hartzen beren eskubideak urratzen direnean edo segurtasuna mehatxatuta dagoenean: batzuetan beren komunitateen aurkako indarkeria ekiditeko lan egiten dute, eskubide-urraketei buruzko informazioa biltzen dute, alde beligeranteekin akordioetara iristen dira, babeslekuei buruzko informazioa ematen dute eta talde armatuei Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren oinarriak irakasten dizkiete. Beraz, tokiko eragileen buruzagitza balizko gaitasun-faltagatik kontuan hartzeko zailtasunei buruz erakunde humanitario handiek eta Nazio Batuen agentziek duten diskurtsoa zehaztu behar da.

Ondorioz, laguntzen deialdiak nazioarteko erakundeei eta Nazio Batuetako agentziei tokiko bazkide gisa proiektuetan parte hartzeko aukera ematen badie ere, beti eduki beharko dituzte estrategia argiak biztanleria laguntzeko, tokiko erakundeen gaitasunak indartzeko eta esku-hartzeen testuingurutik balizko irteerarako. Elementu hau ebaluatu eta eztabaidatu egingo da eragileekin EAHren indarraldian zehar, hurrengo plangintza-zikloan neurriak hartu ditzaten.

Ardatz honen esparruan, ekintza batzuk proposatzen dira, sektoreko eragileek, bereziki euskal erakundeek, informazioa partekatzeko, esperientziak trukatzeko, ezagutzeko eta tokiko bazkideekin itunak indartzeko.

EKINTZAK	EGUTEGI ORIENTAGARRIA	XEDEA ETA BALIABIDEAK
<p><b>2.1.</b> Esparru-proiektu eta -estrategien deialdi publikoa</p>	<p>Deialdia: urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoa</p> <p>Ebazpena: urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoa</p>	<p>Urteko deialdia, ekintza humanitariorako urteko funts banagarrien %70-85eko hornidura duena (1.4 eta 3.1 ekintzen deialdi eta hornidura bera)</p> <p>Bazkide inplementatzaileen erregistroa esku hartzeko testuinguruetan</p> <p>Erakundeak indartzeko inplementatutako jardueri buruzko fitxak: politika edo plangintza humanitarioak, langileak trebatzea, kalitate-irizpideak ezartzea, kontuak emateko baliabideak, zeharkako ikuspegiak txertatzea, etab.</p>
<p><b>2.2.</b> GLEAk sustatutako ekimenak</p>	<p>Dagokion unean</p>	<p>Ekintza humanitariorako urteko funts banagarrien %8-20ko hornidura duten 9 ekimen sustatzea (1.5 ekintzarekin eta 3.2 ekintzaren zati batekin partekatutako xede eta baliabideak)</p> <p>Inplementazioa baloratzea, ekarpen espezifikoak edo 2.1 ekintza osatzen duen ekarpena den kontuan hartuta</p>
<p><b>2.3.</b> Prestakuntza-guneak eta esperientziak trukatzeko guneak lekuan bertan edo EAEn</p>	<p>Urte bakoitzeko bigarren seihilekoa</p>	<p>Erakundeen prestakuntza-beharrak eta partekatutako esperientziak identifikatzea</p> <p>Erakunde akademikoak edo aholkularitza-erakundeak identifikatzea</p> <p>6 gune antolatzea funtsezko gaitan sakontzeko, hala nola kontu-ematea, zeharkako ikuspegiak txertatzea, kalitate-irizpideak, etab.</p>



<p><b>2.4.</b> Jarraipen-batzarrak eta lekura bertara bidaiak egitea</p>	<p>Dagokion unean</p>	<p>12 batzar eta lekura bertara 9 bidaia antolatzea testuingurua eta bertako erakundeak ezagutzeko, inplementatutako jarduketan jarraipena egiteko, ikasitako ikasgaien txertatzea ezagutzeko, eta denen arteko elkarrizketa eta ikaskuntza sortzeko</p>
<p><b>2.5.</b> Erakunde humanitarioen gaitasunak hobetzea egindako lanaren kontuak emateko</p>	<p>Dagokion unean</p>	<p>Inplementatutako ekintzei eta biztanleriaren gogobetetasuna baloratzeko erabili diren bitartekoei buruzko fitxak, partaidetza, gardentasuna, betetako behar eta eskubideak etab. kontuan hartuta</p>

### 3. ARDATSA

#### Euskal herritarrak informatu eta sentsibilizatzea

(H)ABIAN 2030<sup>21</sup> Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiak pentsamendu kritikoa sortzen duen hezkuntza eta pertsona ekintzaileak eta gizartearekiko, norbere bizitzarekiko eta bizi diren inguruarekiko arduratsuak diren pertsonak sortzen dituen hezkuntza sustatzen du, bizi diren lekuko errealitatea eraldatu nahi duten herritar globalak eratuz.

Euskal erakundeen sentsibilizazio- eta hedatze-lanak ekintza humanitarioarekin baino garrantziarekin zerikusi gehiago duten gaitan jarri du arreta. Bestalde, euskal gizarteak komunikabideetan oihartzun handiena izan duten hondamendi naturalak egon direnean mobilizatzeko joera izan du.

Gogoeta hauek kontuan hartuta, GLEAri dagokio eremu honetan (H)ABIAN 2030 estrategiak dauzkan helburuak betetzea. Ildo horretan, helburutzat izango du finantzatzen dituen esku-hartzei buruz euskal gizarteari ematen dion informazioa hobetzea, eta krisialdia sortzen duten arrazoiei buruz sentsibilizatzen saiatzea, ahal den neurrian gizartearen parte-hartzea sustatzeko hedatze-jarduera eta -ekintzetan. Lan honi modu antolatuan ekin behar zaio, GLEAren helburuak partekatzen dituzten eragile humanitarioekin eta beste erakunde publiko batzuekin, kaltetutako pertsonen protagonismoaz eta ahotsaz baliatuz eta eskubide-urraketei aurre egitea gainditzeko egiten duten ahalegina nabarmenduz.

Halaber, beharrezkotzat jotzen da gizartean hondamendiei arreta eskaintzeko sortzen diren ustekabeko ekimen solidarioen berri jakitea, horiek bideratzeko egon daitezkeen moduei buruzko informazio egokia emateko ekimenei sustatzaileei.

EKINTZAK	EGUTEGI ORIENTAGARRIA	XEDEA ETA BALIABIDEAK
<p><b>3.1.</b> Esparru-proiektu eta -estrategien deialdi publikoa</p>	<p>Deialdia: urte bakoitzeko lehengo hiruhilekoa</p> <p>Ebazpena: urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoa</p>	<p>Urteko deialdia, ekintza humanitariorako urteko funts banagarrien %70-85eko hornidura duena (1.4 eta 2.1 ekintzen deialdi eta hornidura bera)</p> <p>Testigantza tipologiari eta implementatutako sentsibilizazio- eta hedatze-jarduerari buruzko fitxak</p> <p>Baterako azterketa Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiaren unitatearekin</p>
<p><b>3.2.</b> GLEAk sustatutako ekimenak</p>	<p>Dagokion unean</p>	<p>Ekintza humanitariorako urteko funts banagarrien %8-20ko hornidura duten 9 ekimen sustatzea (1.5 ekintzarekin eta 2.2 ekintzarekin partekatutako xede eta baliabideak)</p> <p>Osakidetzako pertsonal sanitarioaren sentsibilizazioa START proiektuan parte hartu dezan</p> <p>Hainbat eragile batzen dituen ekimena sustatzea</p> <p>Implementazioa baloratzea, ekarpen espezifiko edo 3.1 ekintza osatzen duen ekarpena den kontuan hartuta</p>
<p><b>3.3.</b> Banakakoen, elkarten eta erakundeen ekimenak bideratzea</p>	<p>2018ko lehen sei hilekoa</p>	<p>Beste sail edo erakunde batzuekin batera egin eta hedatutako informazio-produktua</p>
<p><b>3.4.</b> GLEaren ekintza humanitarioko jarduketaren kontuak ematea</p>	<p>Dagokion unean</p>	<p>Jarduketa humanitarioari buruzko atal espezifiko sortzea urteko memoriarako</p> <p>Jarduketa humanitarioei buruzko komunikazio-produktuak helburutzat duten pertsonentzat egokitutako formatuan egin eta zabalduta</p>

#### 4. ARDATSA

##### GLEAren eginkizuna eta beste eragile batzuekin duen koordinazioa indartzea

GLEAren helburua nazioarteko sistema humanitarioari ekarpena egitea da, bere berezitasun eta eskumenen arabera. Horretarako, haren eginkizuna indartu behar da, ezagutza sortzeko, eta gainerako eragileekin naturaltasunez elkarrizketan aritzeko gai izan dadin. Ondorioz, erreferentziazko pertsona bat izango du, eta EAH egiteko prozesutik aurrera sortutako Ekintza Humanitarioaren Unitatea indartuko du.

GKEek egiten duten lanaz gain, ekintza zehatzetan beste eragile batzuen parte-hartzea indartzeko joera dago –adibidez, unibertsitate, ikerketa-zentro eta adituena–, ekintza humanitarioa ikuspegi zabalagotik aztertzeko. Ekintza humanitarioarekin lotutako eragileak garapenerako lankidetzarekin edo gizartea eraldatzeko hezkuntzarekin lotutakoak baino askoz ere gutxiago direnez, erraza da trukea eta ikasketa sustatuko dituen harremana sortzea.

Halaber, funtsezkoa da Eusko Jaurlaritzaren sailekin eta beste dohaintza-emaile publiko batzuekin antolatzea. Ildo horretatik, beharrezkotzat jotzen da gune formaletan GLEA gutxienez eragile hauekin elkartzea: Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzako Idazkaritza Nagusia, Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua (GLEK) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren Ekintza Humanitariorako Bulegoa.

GLEK, zehazki, Garapenerako Lankidetzari buruzko Legean xedatutako larrialdietako laguntza humanitariorako kontseiluaren definizio-proposamena aurkeztuko du Batzordean eztabaidatzeko.

EKINTZAK	EGUTEGI ORIENTAGARRIA	XEDEA ETA BALIABIDEAK
<b>4.1.</b> Ekintza Humanitarioaren Unitateko eta GLEAko taldea ekintza humanitarioaren arloan prestatzea	Urte bakoitzaren hasiera  Urte bakoitzeko bigarren seihi-lekoa  Dagokion unean	Prestakuntza-premiak identifikatzea  Erakunde akademikoen edo aholkularitza-erakundeak identifikatzea  Taldeak 2.3 ekintzako guneetan parte hartzea funtsezko gaietan sakontzeko  Ekintza Humanitarioaren Unitateak kanpoko 6 prestakuntzetan parte hartzea
<b>4.2.</b> Ekintza humanitarioari buruzko eztabaidetan parte hartzea eta GLEAren esperientzia partekatzea	Dagokion unean	3 eztabaidagunetan parte hartzea

<b>4.3.</b> Koordinazio-ekintzak Osakidetzako pertsonal sanitarioak START proiektuan parte hartu dezan	Dagokion unean	6 jarraipen-bileratan parte hartzea AECIDko Ekintza Humanitarioko Bulegoarekin, Osakidetzarekin eta parte hartzen duten langileekin
<b>4.4.</b> GLEKaren larrialdietako laguntza humanitariorako batzordea	2018	Larrialdietako laguntza humanitariorako batzordea eratzeko proposamena, GLEKan eztabaidatzeko
<b>4.5.</b> Koordinazio-bilerak	Dagokion unean	18 bileratan parte hartzea Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritzarekin  6 bileratan parte hartzea AECIDen Ekintza Humanitarioaren Unitatearekin

## BALIABIDEAK

EAH abiarazteko, araudia egokitu, administrazio-prozedurak doitu eta aplikazioa bideratuko duen dokumentazioa garatu behar da. Zehazki, dekretu berri bat onetsiko da, inprimakiak, baremazioak eta justifikazio-formatuak eguneratuko dira, eta ekintza humanitarioko zeharkako ikuspegiei buruzko dokumentua egingo da.

Finantza baliabideei dagokienez, nazioarteko konpromisoekin eta aurreko ibilbidearekin bat etorriz, EAHk urteko funts banagarrien %10 jasoko du gutxienez larrialdiei erantzuteko eta ekintza humanitarioak bultzatzeko, eta, horrez gain, aurreikusitako beste ekintza batzuk babesteko beharrezkoak diren beste batzuk ere jasoko ditu. Aurreikuspen hau GLEAk bere politikak inplementatu ahal izateko funts nahikoa edukitzearen beharrari buruzko eztabaidan kokatuta dago. Bestalde, lau urteko gida-planek ekintza humanitariorako erabilitako funtsak zehaztuko dituzte baliabide eta estrategien esparru globalean.

Aurrez aipatu bezala, GLEAk Ekintza Humanitarioko Unitatea edukiko du eta bertan gai honetan erreferentea den pertsonak eta erantzukizuna beren gain hartuz ekintzen inplementazioan lagunduko duten langileek parte hartuko dute. Unitateari dagokio ekintza humanitarioko politika gauzatu, jarraipena egin eta ebaluatzea.

## JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

EAHren indarraldia 2018. urtetik 2023. urtera bitartekoa izango da. Sei urteko indarraldia nahikoa dela uste da gertatzen diren aldaketak baloratzeko, 2018. urtean araudia egokitu eta irizpideak eta inprimakiak doitu beharko direla kontuan hartuta.

Testuinguru humanitarioak aldakorrak dira eta etengabeko jarraipena egin behar da, horiei erantzuteko GLEAk duen gaitasuna baloratzeko. Horretarako, hainbat azterketa-kategoriatako informazioa jasoko duten fitxetan oinarritutako jarraipen-sistema diseinatu da. Fitxen azterketari eta eragileen ebaluazio eta ekarpenei esker, apustuen egokitasuna baloratu, eta, hala badagokio, egokitu egin ahal izango da.

EAHtik ondorioztatzen diren ekintzak GLEaren urteko plan operatiboetan txertatuz joango dira, eta indarraldiaren amaieran azkeneko ebaluazio mistoa egingo da, hurrengo plangintza-zikloko erabakiak hartzerakoan gida bezala erabiliko diren ikaskuntzak adierazteko balioko duena.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

1. Iheslarietzako Nazio Batuen Goi Komisarioa, 2017  
[www.unhcr.org/figures-at-a-glance.html](http://www.unhcr.org/figures-at-a-glance.html)
2. 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa. 2007ko martxoaren 8ko EHAA, 48.zk.  
[www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2007/03/0701441a.shtml](http://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2007/03/0701441a.shtml)
3. Garapenerako Lankidetzaren III. Gida Plana 2014-2017  
[www.elankidetz.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan\\_director/eu\\_plandire/adjuntos/III%20Plan%20Director%202014-2017\\_definitivo\\_eu.pdf](http://www.elankidetz.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan_director/eu_plandire/adjuntos/III%20Plan%20Director%202014-2017_definitivo_eu.pdf)
4. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020  
[www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9888/Programa\\_de\\_educacion\\_2017-20\\_EUSK.pdf?1498723050](http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9888/Programa_de_educacion_2017-20_EUSK.pdf?1498723050)
5. Eusko Jaurlaritzaren Esparru Dokumentua, errefuxiatuek Europako mugetan bizi duten krisi humanitarioari eman beharreko erantzun soziala, politikoa, erakundeen artekoa eta sailen artekoa partekatuta orientatzeko  
[www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9888/Programa\\_de\\_educacion\\_2017-20\\_EUSK.pdf?1498723050](http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9888/Programa_de_educacion_2017-20_EUSK.pdf?1498723050)
6. Eusko Jaurlaritzaren plana erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren aurrean jarduteko  
[www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/10561/PLAN\\_frente\\_al\\_Terrorismo\\_Internacional\\_2017.pdf?1511173607](http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/10561/PLAN_frente_al_Terrorismo_Internacional_2017.pdf?1511173607)
7. Nazio Batuak  
[www.un.org/ruleoflaw/es/thematic-areas/human-rights/human-rights-law/](http://www.un.org/ruleoflaw/es/thematic-areas/human-rights/human-rights-law/)
8. [www.icrc.org/es/guerra-y-derecho](http://www.icrc.org/es/guerra-y-derecho)
9. Nazio Batuak  
[www.un.org/ruleoflaw/es/thematic-areas/international-law-courts-tribunals/refugee-law/](http://www.un.org/ruleoflaw/es/thematic-areas/international-law-courts-tribunals/refugee-law/)
10. Nazio Batuak  
[www.acnur.org/fileadmin/scripts/doc.php?file=fileadmin/Documentos/BDL/2001/0022](http://www.acnur.org/fileadmin/scripts/doc.php?file=fileadmin/Documentos/BDL/2001/0022)
11. Nazio Batuak  
[www.icrc.org/spa/resources/documents/misc/64zpm8.htm](http://www.icrc.org/spa/resources/documents/misc/64zpm8.htm)
12. CHS Alliance, Group URD eta Esfera Proiektua, 2015: La Norma Humanitaria Esencial en materia de calidad y rendición de cuentas  
[corehumanitarianstandard.org/files/files/Core%20Humanitarian%20Standard%20-%20Spanish.pdf](http://corehumanitarianstandard.org/files/files/Core%20Humanitarian%20Standard%20-%20Spanish.pdf)
13. World Humanitarian Summit, 2016: The Grand Bargain-A Shared Commitment to Better Serve People in Need  
[reliefweb.int/sites/reliefweb.int/files/resources/Grand\\_Bargain\\_final\\_22\\_May\\_FINAL-2.pdf](http://reliefweb.int/sites/reliefweb.int/files/resources/Grand_Bargain_final_22_May_FINAL-2.pdf)

14. Atal hau idazteko, honako dokumentu hauek hartu dira oinarritzat:

- Pérez de Armiño, K. -Hegoa-Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua- eta Mier, A., Nussbaum, C., Pérez, A., Rey, F. -Gatazka eta Ekintza Humanitarioaren Ikerketa Institutua-Iecah-, 2017: *Ekintza humanitarioari buruzko lan-dokumentuak. Eraldatzen ari den sistema humanitarioa. Munduko Goi Bilera Humanitarioaren osteko erronkak*

- IECAH-MSF, 2016: *La acción humanitaria en 2015-2016. Un modelo en crisis*

- OCDE, 2012: *Towards Better Humanitarian Donorship*

- Overseas Development Institute, 2016: *Time to let go. Remaking humanitarian action for the modern era*

- Ruaudel, H, y Morrison-Métois, S., OECD, 2017: *Responding to Refugee Crises in Developing Countries. What Can We Learn From Evaluations*

[www.elankidetzeta.euskadi.eus/informazioa/kontsultarako-dokumentuak/x63-content7/eu/](http://www.elankidetzeta.euskadi.eus/informazioa/kontsultarako-dokumentuak/x63-content7/eu/)

[www.oecd.org/dac/peer-reviews/towardsbetterhumanitariandonorship.htm](http://www.oecd.org/dac/peer-reviews/towardsbetterhumanitariandonorship.htm)

[www.odi.org/publications/10381-time-let-go-remaking-humanitarian-action-modern-era](http://www.odi.org/publications/10381-time-let-go-remaking-humanitarian-action-modern-era)

[www.oecd-ilibrary.org/docserver/download/ae4362bd-en.pdf?expires=1514376613&id=id&accname=guest&checksum=108F2316BDB19C88DEF9959896BCF187](http://www.oecd-ilibrary.org/docserver/download/ae4362bd-en.pdf?expires=1514376613&id=id&accname=guest&checksum=108F2316BDB19C88DEF9959896BCF187)

15. [www.sphereproject.org/sphere/es/](http://www.sphereproject.org/sphere/es/)

16. Dokumentua egiteko erabili den prozesuari eta atal honetan erabili ditugun dokumentuei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu GLEAren webgunea:

[www.elankidetzeta.euskadi.eus/informacion/eah-2018-2023-eu/x63-content7/eu/](http://www.elankidetzeta.euskadi.eus/informacion/eah-2018-2023-eu/x63-content7/eu/)

[www.elankidetzeta.euskadi.eus/informazioa/kontsultarako-dokumentuak/x63-content7/eu/](http://www.elankidetzeta.euskadi.eus/informazioa/kontsultarako-dokumentuak/x63-content7/eu/)

17. Abrisketa, J., Churruca, C., Cortés, P., Nagore, M., y Zambrano, L. Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak egindako txostena, 2016 *Conclusiones y recomendaciones del estudio sobre acción humanitaria y de emergencia del Gobierno Vasco 2005-2015*  
[www.elankidetzeta.euskadi.eus/informacion/documentos-de-consulta/x63-content7/es/](http://www.elankidetzeta.euskadi.eus/informacion/documentos-de-consulta/x63-content7/es/)

18. 31/2008 Dekretua, otsailaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioentzako laguntzak arautzen dituena. EHAA, 41. zenbakia, 2008ko otsailaren 27a

[www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/02/0801190a.shtml](http://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2008/02/0801190a.shtml)

19. Garapenerako Lankidetzaren II. Gida Plana 2008-2011

[www.elankidetzeta.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan\\_director/eu\\_plandire/adjuntos/Garapen%20Lankidetzarako%20Gida%20eus.pdf](http://www.elankidetzeta.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan_director/eu_plandire/adjuntos/Garapen%20Lankidetzarako%20Gida%20eus.pdf)

20. [www.aecid.es/ES/ah/que/emergencias](http://www.aecid.es/ES/ah/que/emergencias)

21. (H)ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia

[www.elankidetzeta.euskadi.eus/informazioa/habia-n/x63-content7/eu/](http://www.elankidetzeta.euskadi.eus/informazioa/habia-n/x63-content7/eu/)





